



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Marcelino Bazterrica Alchu
Mikel Gereka Zelaia
María Milagros Erreguerena Vera

2014ko irailaren 18an, 13:00etan, Aparteko Osoko Bilkuran elkartzen dira Iturenko Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. María José Bereau Baleztena — Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Miguel José Belarra Tellechea. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA. 2 POLIGONOKO 81, 82, 289, 920, 537, 538, 158, 288, 286, 285 ETA 284 PARTZELAK (ITUREN).

Aztertu da Planeamendurako Arau Subsidiarioen antolamenduko egiturazko determinazioetako aldaketa, 2 poligonoko 81, 82, 289, 920, 537, 538, 158, 288, 286, 285 eta 284 partzei dagokiona, hiri lurzorua handitzeko. J.A.O. eta I.A.E. dira espedientearen sustatzaileak. Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen 80, 79, 70 eta 71. artikuluekin bat etorritz, aho batez, erabaki da:

1. Planeamendurako Arau Subsidiarioen aldaketari hasierako onespina ematea.
2. Akordio hau argitaratzea Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Foru Komunitatean editatzen diren egunkarietan, hilabete bateko epean jendaurrean egoteko.
3. Espedientea igortzea Sustapen Departamentura, hark txostena egin dezan Nafarroako Gobernuko departamentuen eskumenetako gaiez.
4. Erabaki hau jakinaraztea aldaketaren eremuan sarturik dauden lurren jabe guztiei eta mugakideei.

2. ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA. 3 POLIGONOKO 11 ETA 12 PARTZELAK (AURTITZ).

Aztertu da Planeamendurako Arau Subsidiarioen antolamenduko egiturazko determinazioetako aldaketa, 3 poligonoko 11 eta 12 partzei dagokiona, hiri lurzorua handitzeko. J.L.E.A., M.M.U. eta I.D.A. dira espedientearen sustatzaileak. Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen 80, 79, 70 eta 71. artikuluekin bat etorritz, aho batez, erabaki da:

1. Planeamendurako Arau Subsidiarioen aldaketari hasierako onespina ematea.
2. Akordio hau argitaratzea Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Foru Komunitatean editatzen diren egunkarietan, hilabete bateko epean jendaurrean egoteko.
3. Espedientea igortzea Sustapen Departamentura, hark txostena egin dezan Nafarroako Gobernuko departamentuen eskumenetako gaiez.
4. Erabaki hau jakinaraztea sustatzaileei eta aldaketaren eremuan sarturik dauden lurren mugakideei.

3. NAFARROAKO MENDIALDEKO ESTRATEGIA (LEADER).



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Nafarroako Foru Erkidegoko 2014-2020 epealdirako Landa Garapenerako programaren (LEADER) toki-garapenerako neurriaren barnean (Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsak % 53an batera finantzaturik) 6. lehentasunean, "Landa-eremuetan gizarteratzea, pobrezia gutxitzea eta garapen ekonomikoa sustatzea" deritzon, parte hartzeari dagokionez, aho batez erabaki da:

LEHENA: Esklusiboki parte hartzea "Nafarroako Mendialdeko 2014-2020 epealdirako toki-garapenerako partaidetza-programan", 2014an idatzia eta 2014-2020 aldian 'Cederna Garalur Elkartea' (IFZ: G-31372063) tokiko ekintza-taldeak kudeatua, Nafarroako Foru Erkidegoko 2014-2020 epealdirako Landa Garapenerako programaren (LEADER) toki-garapenerako neurriaren barnean, 6. lehentasunean, "Landa-eremuetan gizarteratzea, pobrezia gutxitzea eta garapen ekonomikoa sustatzea" deritzon.

Erabakia hartu da Iturengo udalerria ondoren aipatzen diren xedapenetan jasotako laguntzetara bildu ahal izateko. Xedapenak honako hauek dira: Europako Parlamentuko eta Kontseiluko abenduaren 17ko 1303/2013 (EB) Erregelamenduko 28. artikulutik 31ra bitarteko xedapenak; EGEF, EGF, kohesio-funtsa, LGENF eta FEMP xedapen komunak, 1083/2006 (EE) Erregelamendua indargabetzen dutenak; eta Europako Parlamentuko eta Kontseiluko abenduaren 17ko 1305/2013 (EB) Erregelamenduko 42. artikulutik 44ra bitarteko xedapenak, Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren bitartez (LGENF) landa-garapean laguntzeari buruzkoak, Kontseiluaren 1698/2005 (EE) Erregelamendua indargabetzen dutenak.

BIGARRENA.- Udalbatzako kideek badute 'Cederna Garalur Elkartea' tokiko ekintza-taldeak Ituren udal-barrutian, Nafarroako Foru Erkidegoko 2007-2013 epealdirako Landa Garapenerako programaren (LEADER) 4. ardatzaren barnean (Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsak % 53an batera finantzaturik) egiten duen lan onaren berri.

HIRUGARRENA.- Udalak, lehenengo puntuan aipatutako 1303/2013 (EB) Erregelamenduko 33. artikulua betetze aldera, 'Cederna Garalur Elkartea' tokiko ekintza-taldearekin "Nafarroako Mendialdeko 2014-2020 epealdirako toki-garapenerako partaidetza-programan" parte hartzeko konpromisoa hartzen du.

LAUGARRENA.- Udalak, halaber, tokiko ekintza-taldeko batzorde betearazleak edo horren baliokideak ezarriko dituen kuotak ordaintzeko konpromisoa hartzen du, funts publikoek estaltzerik ez duten zatian taldearen funtzionamenduaren kostua finantzatze aldera.

BOSGARRENA.- "Nafarroako Mendialdeko 2014-2020 epealdirako toki-garapenerako partaidetza-programaren" kudeaketaren barnean, 2014-2020 epealdian tokiko ekintza-taldeak deituko dituen bilera guztietara joateko konpromisoa hartzen du udalak.

SEIGARRENA.- Udalak alkate andrea ahalduz hartzen du Udalaren izenean 'Cederna Garalur Elkartea' tokiko ekintza-taldearekin hitzarmen hau gauzatzearen ondorioz sor daitezkeen dokumentu guztiak izenpetu ditzan.

ZAZPIGARRENA.- Akordio hau 'Cederna Garalur Elkartea' tokiko ekintza-taldeari (IFK: G-31372063) helaraziko zaio behar diren ondorioetarako.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Eta bertzerik ezean, 13:50ak direnean, alkate andreak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.